



**Arartekoaren 2019R-1840-18 Ebazpena, 2019ko uztailaren 23koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio ondorioz gabe utz dezala etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko erabakia.**

#### Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekora jo zuen eta adierazi ez zegoela ados Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko hartutako erabakiarekin.
2. Kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskatu zuen 2018ko ekainean.

Ekainaren 4an, Lanbidek kexagileari entzunaldi izapidea eman zion eta honako hau eskatu:

- *“...Hacer valer con carácter previo a la finalización de la instrucción del expediente todo derecho o prestación de contenido económico que le pudiera corresponder a la persona titular o a cualquiera de las personas miembros de la unidad de convivencia: JUSTIFIQUE el motivo de la diferencia del precio de los subarrendos celebrados (100, 150 y 250 euros). A similar características, similar precio.*

(...)

- *APORTE: Documento legal en el que se determinen expresamente las características de la vivienda (metros cuadrados, habitaciones disponibles, etc). NO se admiten más unidades de convivencia que habitaciones disponibles.*

- *Escrituras de propiedad*

(...)"

3. Horri erantzunez, ekainaren 15ean, emandako epearen barnean, kexagilea Lanbideko bere bulegora joan zen eskatutako dokumentazioa entregatzeko. Zehazki, Arartekoari emandako egiaztagirian berariaz jasotzen zen hauek aurkeztu zituela:

- *“Escrito de alegaciones  
Cert. Catastral  
Escrituras de la vivienda  
Anexo al contrato de arrendamiento*





*Contrato de arrendamiento  
Tres contratos de subarriendo  
Extracto cuenta bancaria"*

Gainera, entregatutako alegazioen idazkian kexagileak jakinarazi zuen kontratuetakozko prezioen arteko alde azpierreantamenduan emandako gelen tamainengatik zela. Gainera, etxebizitzak 5 gela zituela azpimarratu zuen.

Azkenik, agiri baten bidez egiaztatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroan fidantza uzteko eskaera egin zuela.

4. Alegazioen idazkian kexagileak hori guztia azaldu arren, 2018ko ekainaren 23an, Lanbideko zuzendari nagusiak etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzea ebatzi zuen. Ebazpenean jasotako arrazoiak honako hauek ziren:

- *"No haber aportado documentación justificativa que explique la diferencia del reparto de los gastos de alojamiento (tiene 3 subarriendos contratados por 100, 150 y 250 euros) y, en consecuencia, la cuantía que le corresponde a usted de Prestación Complementaria de Vivienda (el alquiler asciende a 750 euros).*

*Además, el anexo al contrato de arrendamiento aportado para acreditar las características de la vivienda es de fecha 26 de agosto de 2013. Deberá aportar otro anexo con la misma fecha del nuevo contrato de arrendamiento (13 de junio de 2018) y, en el plazo de 6 meses el justificante de fianza en Bizilagun."*

5. Ukatzeko ebazpenarekin bat ez zetorrenez, 2018ko abuztuaren 2an, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri zuen kexagileak, eta, horren bidez, adierazi zuen ez zegoela ados emandako arrazoiarekin.

Ildo horretan, azpimarratu zuen azpierreantariaren hileko errentan zegoen aldearen arrazoi zela gela bakoitzak zuen azalera desberdina.

Horregatik guztiagatik, baliatutako arrazoiak kontuan hartzeko eskatu zuen berriz, eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpenaren ondorioz gabe utzi zezatela.

6. Azaldutakoa ikusita, 2018ko irailaren 18an, Arartekoak laguntza-eskaera bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari eta Lanbideko etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpenaren arrazoi zehatzak argitzeko eskatu zuen.





Gainera, Arartekoak sailari azpierrentamenduko araubideari buruzko aurretiazko gogoeta batzuk helarazi zizkion, bai eta aurrez eskubide ekonomikoak gauzatzeko betebeharra ere.

7. Arartekoak ez zuen erantzunik jaso informazio-eskaera horri lotuta, eta, hortaz, 2018ko urriaren 18an sailari errekerimendu bat helarazi eta berariaz erantzun behar zuela gogorarazi zion.
8. Horri erantzunez, 2019ko ekainaren 11n, sailak eskatutako informazioa igorri zuen. Zehazki, etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeari dagokionez, honako hau dio:

- *“Lanbidek ez zuen EPO prestazioa ezetsi eduki ekonomikoko eskubideak erabiltzeko betebeharra urratu zuelako*

(...)

*49/2010<sup>1</sup> Dekretuaren 21.1.e) artikulua arautzen du azpierrentamendu-kontratuen ondoriozko diru-sarrerak ez direla bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak kalkulatzeko zenbatzen, baldin eta ez badute alokairu-zenbatekoa gainditzen.*

*Baina agerikoa da EPO prestazioa arautzen duen 2/2010 Dekretuaren 9. Artikulua gastu egiazatuari begiratzen diola EPO prestazioagatik jaso behar den diru-zenbatekoa zehazteko; kasu honetan, alokairua 750€-koa da, eta hiru azpierrentamendu daude, 250€, 150€ eta 100€-koak, hau da, 500€ guztira. Ondorioz, interesdunak 250€ jaso beharko lituzke hilean, jaso daitekeen zenbateko handiena. Azpierrentamenduen zenbatekoak handiagoak izango balira, interesdunak diru-zenbateko txikiagoa jasoko luke; izan ere, jasoko den EPO zenbatekoa baldintzatzen baitute azpierrentamenduen zenbatekoak. Estaerako, hiru 250€-koak izango balira, onuradunak ez luke EPO prestazioa jasotzeko aukerarik izango.”*

Halaber, jarritako aukerako berraztertze errekurtsoari dagokionez, Lanbideko zuzendari nagusiak honako hau helarazi dio Arartekoari:

- *“2019ko otsailaren 14ko (...) Ebazpenak ezetsi egin zuen interesdunak jarritako errekurtsoa.”*

Dena den, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez zuen ebazpen baten kopiarik sartu.

---

<sup>1</sup> Arartekoak uste du Lanbide Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaz ari dela.



9. Horrenbestez, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

### Gogoetak

1. Lehenik eta behin, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari helarazi nahi dio bidalitako laguntza eskaerari behar bezala erantzuteak garrantzi handia duela, eta bere esku duen informazio interesgarri guztia jaso behar dela bertan erakunde honetan jartzen diren kexak zuzen izapidetze aldera.

Illo horretan, herri-administrazioekiko harremanak zuzendu behar dituen kontraesanaren printzipioa aintzat hartuta, Arartekoak hasierako lankidetzaren eskaera bat egin zuen 2018ko irailaren 18an. Nolanahi ere, hari ez zitzaion behar bezala erantzun 30 eguneko epean. Beraz, urriaren 18an, Arartekoak berriz ere aurkeztu zuen informazio eskaera –horren bidez, kexagileak azaldutako arazoaren berri eman zuen eta jakinarazi zuen espedientean jasotakoa osatzeko informazioa eskuratu beharra zegoela–.

Hori guztia gorabehera, Lanbidek ez du lankidetzaren eskaera behar bezala bete 2019ko ekainaren 11 arte.

Beraz, erantzuna igortzean izandako atzerapenaren ondorioz, Arartekoak ezin izan du behar bezain laster jardun.

Arartekoak gogora ekarri nahi du, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila *“eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten edo argibide guztiak lehentasunez eta premiaz ematera behartuta dagoela”*.

2. Kontu juridiko materialei dagokienez, Lanbidek hasieran ulertu zuen, entzunaldi izapidea bidalita, prezio ezberdinetako azpierrentamenduko kontratuak egoteak zekarrela etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskatzaileak betekizun hau ez betetzea: *“Espedientearen instrukzioa amaitu aurretik, egokitu dakioken edozein eskubide edo prestazio ekonomiko baliaraztea.”*

Arartekoa ez dator bat Lanbideko zuzendari nagusiak bere ebazpenean jasotako zioekin, jarraian adieraziko ditugun arrazoiak direla-eta.

3. Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legeak ez die titularrei eskatzen ahalegindu daitezkeen ahal duten egoera guztietan irabazia lortzen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzeari buruzko betebeharra betetze aldera; gainera, ezin da eskakizun hori ondorioztatu lege horretan adierazitakotik. Eta, jakina, esan gabe doa ez dela ezartzen irabazi horrek ahalik eta handiena izan behar duenik.





Gainera, Arartekoak uste du garrantzitsua dela legegileak egitea pertsona batek azpierrentamendutik lor ditzakeen diru-sarrerari emandako tratamenduaren gaineko gogoeta. Izan ere, horiek ez dira errendimendu ekonomikotzat hartu behar, maiatzaren 25eko Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretuaren (aurrerantzean, 147/2010 Dekretua) 21.1.e) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Horrenbestez, azpierrentamendu kontratutik lortutako diru-sarrerak, handiak zein txikiak izan (betiere etxebizitzagatik ordaindu beharreko zenbatekoa gainditzen ez badute), ez dira errendimendutzat joko diru-sarrerak bermatzeko errenta kalkulatzeari.

Aurrez azaldutako guztia aintzat hartuta, Arartekoaren ustez, eskubide ekonomikoak baliatzeari lotuta Lanbidek egindako aipamenak ez du, azaldutako kasuan, nahikoa lege babesik, arrazoi honengatik, neurri handi batean: gela bakoitzeko finkatutako prezioa adostutako azpierrentamenduekiko desberdinak direla pentsa badaiteke ere, kexagileak prezioen arteko aldearen arrazoiak egiaztatu ditu, eskatu zaion dokumentazioa aurkeztuz.

4. Nolanahi ere, espedientean dagoen dokumentaziotik ondorioztatu daitekeenez, Arartekoak ikusi du Lanbidek, etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko erabakia hartu aurretik, jakin zuela zein zen errentamenduko hileko errenta (750 €) eta azpierrentari guztiek ordaintzen zituzten zenbatekoak (250 €, 150 € eta 100 €, hurrenez hurren). Inguruabar hori behar bezala egiaztatu zen aitorten eskaeran dokumentazioa aurkeztuz eta, horren ondoren, 2018ko ekainaren 15eko alegazioen idazkian gogoetak helaraziz.

Dena den, Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera ukatzea ebatzi zuen, kexagileak ez baitzuen aurkeztu ostatuko gastu-banaketaren aldea eta higiezinaren beraren ezaugarriak azalduko zituen egiaztagiririk.

Hala ere, Arartekoaren ustez, Lanbideko zuzendari nagusiak prestazioa ukatzeko ebazpena ez zuen behar bezala oinarritu urratutako lege agindua aipatuz, bai eta kexagileak igorritako azalpen nahiz argudioak behar bestekotzat ez irizteko arrazoiak aipatuz ere.

5. Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi du administrazio-egintzak arrazoitu behar direla zuzenbideko egitate eta oinarriak labur-labur aipatuz, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 54. artikuluan eta orain indarrean dagoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 35. artikuluan xedatutakoa betez.

Zehazki, Arartekoak 2013an egindako diagnostiko-txostena agirian<sup>2</sup> bere kezka agertu zuen Lanbidek emandako ebazpenak ez zeudelako behar beste arrazoituta.





Gainera, esan zuen, ebazpen jakin batzuetan jasotako arrazoiei erreparatuta, oso zaila zela errekurso eraginkor bat egitea. Azkenean, berriro ere adierazi zuen kezkatuta zegoela, ahaleginak egin arren, hauteman zuelako Lanbidek jarraitzen zuela arrazoiketa argirik gabeko ebazpenak ematen, eta zuzenbide-oinarriak jasotzen ez zituzten forma estandarizatuak erabiltzen.

Ildo beretik, Arartekoak urtarrilaren 20ko 1/2014 Gomendio Orokorra<sup>3</sup> egin zuen; bertan ondorioztatzen zen eskubideak mugatzen dituzten ebazpen guztietan jaso behar dela hartutako neurria berariaz arrazoitzen duen legezko agindua eta, egitateen deskribapenari dagokionez, saihestu behar dira erreferentzia estandarizatuak.

Azkenik, eskakizun hori Arartekoak aztertu du Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017<sup>4</sup> izeneko agirian; bertan, labur-labur ondorioztatu zen berriz, Lanbidek ebazpenak arrazoitzeko orduan hobetzeko tarte zabala zuela.

Aztertzen ari garen kasuan, etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea ukatzeko ebazpenean ez zen berariaz manurik aipatu. Gainera, soilik aipatu zen ostatuko gastu-banaketaren arteko aldea azaltzen zuen egiaztagiria aurkeztu ez izana. Baina kexagileak hori bitan ere behar bezala egiaztatu zuen, eta honela justifikatzen zen: azpierrenta emandako gelek zuten azalera ezberdina.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak berriro ere adierazi nahi du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 35. artikuluari jarraituz, Lanbidek egitateen aipamen laburra eginez arrazoitu behar dituela eskubide subjektiboak eta interes legitimoak mugatzen dituzten erabakiak.

6. Halaber, Arartekoak ikusi du kexa-espeditente honetan Lanbidek dokumentazioa eskatu duela, eta hori lortzeko, hainbat kasutan, prestazioa aitortzeko eskatzaileak ahalegin neurrigabeak egin behar dituela.

Zehazki, Lanbidek 2018ko ekainaren 4ko entzunaldi izapidean eskatu zuen ordainagiriak entregatzeko *"acredite como hace frente a los gastos cotidianos de*

---

<sup>2</sup> **Arartekoa.** *Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen.*

[Linean eskuragarri]: [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/3\\_3272\\_3.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/3_3272_3.pdf)

<sup>3</sup> **Arartekoa.** Arartekoaren 1/2014 Gomendio Orokorra, urtarrilaren 20koa. Lanbidek arrazoitu egin behar ditu eskubideak mugatzen dituzten ebazpenak. [Linean eskuragarri]:

[http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_3269\\_1.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3269_1.pdf)

<sup>4</sup> **Arartekoa.** Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017. Ondorioen eta gomendioen 4.1.2. puntua 35. or. eta 4. puntua, 126. eta 127. or. [Linean eskuragarri]: [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4199\\_1.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf)

*alquiler y suministro (luz, agua, teléfono, etc.)", eta honako hau aurkezteko: "documento legal en el que se determinen las características de la vivienda (metros cuadrados, habitaciones disponibles, etc.)", y "escrituras de la propiedad".*

Dena den, Lanbidek eskatutako dokumentazioa aurkeztu arren, Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzea ebatzi zuen.

Arartekoaren aburuz, etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu baino lehen, Lanbidek balorazio bat egin behar zuen eta ondorioztatu azpierrentarietara hitzartutako hileko errentak ez zuela alokairuaren zenbatekoa gainditzen, eta entregatutako dokumentazioaren artean egiazta zitekeela adostutako prezioen arteko aldea azalera ezberdinetako gelak izateak eragin zuela.

Izan ere, etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko hasieran egindako eskaera izapidetu ondoren, kexagileak beste eskaera bat egin zuen 2018ko abuztuaren 6an. Azkenik, Lanbideko zuzendari nagusiak bere eskubidea aitortu zuen azpierrentamenduko kontratuen inguruabarrak eta etxebizitzaren ezaugarriak aldatu gabe.

7. Amaitzeko, Arartekoak egiaztatu du Lanbidek ez zuela ebatzi eta, beraz, ez zuela jakinarazi kexagileak jarritako aukerako berraztertze errekurtsoa urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 124.2. artikuluan ezarritako hilabeteko epean.

Alderdi horri buruz, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 21. artikuluan honako hau agintzen du: administrazioak berariazko ebazpena eman behar duela eta prozedura guztietan jakinarazi behar duela, abiarazteko modua edozein izanda ere. Hori dela eta, berariaz ebazpenik ez ematea irregulartasun larritzat jotzen du legegileak. Zehazki, *"el Tribunal Constitucional reitera que el deber de resolver entronca con la cláusula del Estado de Derecho (art. 1.1 CE), así como con los valores que proclaman los arts. 24.1 y 106 de la Norma Suprema."*<sup>5</sup>

Esan dugunez, Lanbideko zuzendari nagusiak 2019ko otsailaren 14an ebatzi zuen kexagileak 2018ko abuztuaren 2an aurkeztutako aukerako berraztertze errekurtsoa.

---

<sup>5</sup> ARZOZ SANTISTEBAN, Xabier. "Administrazio isilune positiboaren gailurra eta krisia", *Revista Española de Derecho Administrativo*, 170/2015 zenbakia, Editorial Civitas, S.A. Epaletako batzuk: *Konstituzio Auzitegiaren 6/1986 Epaia, urtarrilaren 21ekoa, 3. oinarri juridikoa; 204/1987 Epaia, abenduaren 21ekoa, 4. oinarri juridikoa; 180/1991 Epaia, irailaren 23koa, 1. oinarri juridikoa; 86/1998 Epaia, apirilaren 21ekoa, 5. eta 6. oinarri juridikoak; 71/2001 Epaia, martxoaren 26koa, 4. oinarri juridikoa; 188/2003 Epaia, urriaren 27koa, 6. oinarri juridikoa; 220/2003 Epaia, abenduaren 15ekoa, 5. oinarri juridikoa; eta 239/2007 Epaia, abenduaren 10ekoa, 2. oinarri juridikoa.*



Adierazitako guztia aintzat hartuta, Arartekoaren iritziz, Lanbidek baliatutako epeak hobetzeko tarte zabala dago, kexagileak jarritako aukerako berraztertze errekurtsoa ebazteko eta jakinarazteko garaian.

8. Laburbilduz, Arartekoak egiaztatu du kasu honetan ez daudela Lanbidek adierazitako arrazoiak (etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzea justifikatu zutenak). Zehazki, Arartekoak egiaztatu du kexagileak une oro baliatu zuela *“eskubide ekonomiko oro”*. Izan ere, bizi den higiezinako zenbait logela eman du azpierrentan, etxebizitzaren gastuak ordaintze aldera. Beraz, ezin da interpretatu azpierrentamenduko kontratu bakoitzaren prezioaren arteko aldeak ekarri duenik eskubide ekonomiko bat baliatzeko betebeharra ez betetzea.

Gainera, Arartekoak ikusi du kexagileak Lanbideren errekerimenduari behar bezala erantzun diola eta etxebizitzako ezaugarriak eta azalera etxebizitzaren eskriturarekin eta katastroko ziurtagiriarekin egiaztatu dituela. Arartekoak errepikatu du gehiegizkoa dela etxebizitza baten errentariei dokumentazio hori entregatzeko eskatzea.

Amaitzeko, Arartekoak berretsi du Lanbidek beharrezkoa den informazio guztia izan zuela etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskaera ebazteko bere espedientea izapidetzeko orduan eskatutako azalpen guztiak helaraztean.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arartekoak gomendio hau egin nahi du:

## GOMENDIOA

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen dio interesdunari etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu zion ebazpena (2018ko ekainaren 23koa) baliogabetu dezala, egiaztatu baita ez dagoela behar adina lege-babesik horretarako.

Beraz, prestazioa ukatzeko arrazoirik ez zegoela egiaztatu ondoren, kexagilearen etxebizitzarako prestazio osagarria aitortuko da dagozkion atzerakinak ordainduz aitopen eskaera gauzatu eta hurrengo egunetik (2018ko ekaina) 2018ko abuztuaren 7ra arte; azken data horretan, Lanbideko zuzendari nagusiak prestazioa aitortzeko bigarren eskaeraren aldeko ebazpena eman zuen.

